



# IDEIAK JENDAURREAN PLAZARATZEKO EKIMENA

'Ahozotasuna eta bertsolaritza' izeneko proiektua ari dira lantzen Laskorain, Hirukide eta Samaniegoko ikasleak 7

## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

# hitza



**Igandea**  
**2008-05-18**

VIURTEA 1.437. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Jose Mari Gorrotxategi, Tolosako udaletxeko arkupeetan, atzoko omenaldian. N. URBIZU

## EGINDAKO LANA ESKERTU DIOTE GORROTXATEGIRI

**TOLOSA** Plaza Zaharrean harrera egin ondoren, udaletxeko areto nagusian izan zen ekitaldia Udaleko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariekin eta konfiteroa hobekien ezagutzen dutenekin

**Juan Mari Jauregiren omenezko oroitarrria hautsi dute ezezagun batzuek**

**TOLOSA** Legorretako Burnikurutzetan mendian dago jarrita 4




Anje Duhalde atzoko saioan, Leitzan. N.G.

## Ande Duhalderen emanaldiak harrera xumea izan du

**LEITZA** Euskal Kantarien III. Topaketa hasi zen atzo; gaur ere ekitaldiak izango dira egun osoan

**DISEINU GRAFIKO eta sormenean oinarritutako heziketa**

**Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zirkulak**



**ceinpro**

**TITULAZIO OFIZIALAK**

Nazioarteko lehiaketak  
praktikak atzerrian

IRUDIZTAPENA . KARTELGINTZA . PUBLIZITATEA .  
ARGAZKIGINTZA . BERRUKIPEN DIGITALA . SERIGRAFIA

WEB DISEINUA . MULTIMEDIA . MAKETAGINTZA

[www.ceinpro.es](http://www.ceinpro.es)

**INFORMAZIOA 943 310 873**

Hiritik Pasealekua 05 • 20008 Donostia • Gipuzkoa • Faxa 943 310 870

**A Argazki zaharra**



# Erlijio kutsua duten ekitaldiak maiatzean

**TOLOSALDEA** • Jaunartzeak ohikoak izaten dira hilabete honetan. Urteetan atzera egiten badugu ohikoa izaten zela lehen ere ikus dezakegu. 1952. urtekoa da goiko argazkia. Erljio usadio haren berri emateaz gain, Villa-

bonako antzinako ikuspegia ere azaltzen du; egun, Ulako etxeak dauden lekuan dago aterata. Behekoa, 1943ko maiatzekoa da, Eskolapioen prozesioa, Tolosan. AMASA-VILLABONAKO ERRETRATU ZAHARRAK / JESUS ELOSEGI 1907-1979

**E Eztabaida** info

**14 Orduko Ibilaldia: egiteko asmorik baduzu, zergatik egingo duzu martxa? Zergatik uste duzu egiten duela jendeak?**

■ - «Niretzat lehen aldia da eta egia esan nahiko urduri nago. oso gogorra dela esan didate eta ez naiz gehiegi entrenatu. Pixkat ibili bai baina nere inguruko jende hola dakitena in behar dula pila bat ai da preparatzen... bidea de ezdakit. baina gogotsu nao ta horrek animatzeit. Asteleneen ikusikoa. nik bazpare jai hartuet lanen...»

■ - «Nik ez det holakoik sekula ingo. Bakit hau irakurrita jende pila bat gainea botako zaitela, 3.000 inguru daudelako izena emanda, baina ze erokeri klase da hau? Eta beharrezkoa al da? Niri mendia gustatzen zait baina familikin jun ta egunpasa egiteko ez sufritzeko. Limitetik gora dagoen guztia nei txarra iruitzen zait eta hau limetetik oso gora dao. 14 ordu jarraian oinez? Jakin nahiko nuke askok nola bukatzeuen...»

■ - «Aurrekoaren mezua irakurriet. Alde batetik arrazoi izan dezakezu baina superazio moduko bat da. Neri erokeria iruitzen zait bate preparatu gabe balinbazoaz baina aurretik entrenatuta zergatik ez dezu ba ingo? Maratoiak eta beste kirolak de iteia, ba! Ta osasuneako askoz kaltegarriok gainea. Bakoitzak in dezala nahi duna (ta nik ez det in behar, e?)»

■ **Olatz.** «Ba nik laugarren aldiz in behar det eta gorputzak uzten ditzen bitarten iten jarraitukoet. Oso ondo pasatzet eta oso gustoa geatzen naiz».

■ **Jose Migel.** «Erronka hauek eon behar diela iruitzen zait ba nei. Nei behintzat gustatzen zaizkit, gero gaintitu ezkeo hartzen dan sentazioagatik».

■ **Arantxa.** «Nik parte hartuko det, behin behintzat egin nahi nuelako, baina egin eta gero ez det uste gehiotan parte hartuko detenik, gehiegi da netzako».

**H Hilberria**

Attona  
**ZELESTINO OTAMENDI GARMENDIA**  
Abaltzisketan hil zen, 2008ko maiatzaren 17an, 88 urte zituela.

Zurekin igarotako uneak  
Inoiz ez ditugu ahaztuko.  
Attona Zelestino  
Gurekin izango zara betiko.



Zure bilobak: Iraitz eta Mikel, Izaro eta Rakel, Ainara eta Ekaitz, Iker eta Bakarne, Haritz eta Alazne, Haritz eta Maider, Aloña eta Iñaki, Ainara (\*), Ekaitz, Oskarbi, Alaitz eta Anartz, Ainhitze eta Andoni, Oier, Jon eta Gorka.  
Zure birlobak: Haitzart, Intza, Ibai, Maren, Alar, Ekaitz, Lizar eta Ohian.

**ABALTZISKETAN**  
2008ko  
maiatzaren 18a

**U Urteurrena**

**MARTIN SAROBE LASARTE**  
(V. urteurrena)



Zure irria  
zure ahoan,  
zure irria  
gure bihotzean

**Jone, Jone eta Oihana**

**ZARAUTZ**  
2008ko  
maiatzaren 18a

**E Eskertza**

**AMETS AIZPURUA AGIRRETXE**  
(Gaztea)



Gaztearen azken egunetako trantzean era batera edo bestera babesa eta laguntza eman diguzuen guztioi gure eskerrik beroenak

**Etxekoek**

**ZUMAI**  
2008ko  
maiatzaren 18a

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

**902 402 900**  
zerbitzu iraunkorra

**BULEGOAK:** Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala · Tolosa (Bellatokia)

Aiztondoko II. Gutun Lehiaketan, helduen mailan, bigarren saria lortu berri du Lurdes Gorostegi zizurkildarrak. Eskualdeko lehena bera izan da beraz. 'Amalurra maitea' izeneko gutun honekin lortu zuen bigarren saria.

## Amalurra maitea

**M**iloika urte igaro dira jaio ginenetik. Ez dut garai hartako guztiaren oroitzapen garbirik baina, gure sorreraren istorioa askoren ahotan entzuten det. Egun eguzkitsuetan baita ekaitza egunetan ere, mendiek, harrokek, zuhaitzek, lainoek... guztiek gertaera hura pozez gogoratzen dute.

Ura, lurra, sua eta haizearen arteko dema hura ikaragarria izango zen. 4 elementuak, beraien biziraupena ziurtatzeko borrokan, bat berak ere amore emateko asmorik gabe.

Orduan izan zen, ezta? Unibertsoko partikulek eragindako indar baten poderioz, eztanda miresgarri hura gertatu eta lau elementuak bat eginaz, elkarbizitzen hasi ziren, gure sorrera ekarriaz.

Azer miraria! Edera zara benetan... Egunero aurkitu dezakegu txoko berri bat zurean; magiaz beteriko inguruak, ahozabalik uzten zaituzten paisaiak... Oh, zorioneakoak gu! Osasunez betetzen gaitu zurekin armonian bizitzeak, baina badirudi, guztiak ez direla jabetzen zu errespetatzeak duen garrantziaz.

Milaka astakeri ikusteko jaiokoak gara! Gauzai karagarriak gertatzen ari dira eta gehienek beste alde batera begiratzen dute. Urtegien arazoak, erreaustegiak, errepideak, telefonoen antenak, eraikuntzak, kutsadura...

Amalurra, urteetan osasuntsu iraun duzu, zure gain jasaten ari



zaren aldaera eta kolpe guztei aurre eginez. Bide zaila izaten ari da zurea eta oso indartsua bazara ere, poliki-poliki nekatzen zoazela antzematen zaizu. Ez eman amore!

Zu ahultzen zoazen heinean, bizitzan eta inguruan ditugun altxor baliosuenak galtzen goaz. Mese-dez, eutsi, jarraitu borrokan, orain arte bezain zoragarria izan zaitezten!

Guztia zor dizut! Itsaso, bailara eta mendi zoragarri hauekako haize freskoa arnasteko aukera, inguruetako lasaitasuna... Zure babes-

ri esker hemen jarraitzen dut nik. Zuk, bizitza guztian babestu nauzu, gordeleku seguruenetan ostatu emanez.

Denbora luze honetan, garaiak asko aldatu dira. Lehen, jentilak etortzen ziren uzta onak ziurtatzeko opariak ekartzea. Arkumeak, ahuntzak, txanponak, harriak... denetatik aurkitzen nuen leizearen sarreran eta nire indar guztiak batu behar nituen jentilei merezi zudena emateko. Uztak hondatu edo emaitzak ugartu... ez zen lan erraza!

Iada, ez dira jentilak opariak

ekartzera etortzen. Orain, bakar-dadean, haizearen kantu hotsaz gozatuz eta neure urrezko orrazia ilean pasaz, zuk oparitu dizkiguzun ingurune zoragarri hauek kontenplazten ditut.

Hala ere, ez nago beti bakarrik. Maiz gerturaten dira inguru guztietatik etorritako mendizale eta bisitariak. Nahiz eta beraiek ni ez ikusi, askok oraindik ere, nire presentzia somatzen dute.

Belaunaldiz-belaunaldi, ahoz-ahoz zabaltzen doazen istorioak entzutea dibertigarria da. Zebait istorio pertsona bakar baten ingu-

ruan. Batzuentzat zintzoa, beste-entzaz gaiztoa; oilo hankak eta ahuntz hankak jartzen dizkirate, emakume eder baten moduan Euskal Herrian zehar bidaiatzen duen sorgina bezala ere deskribatzen naute.

Bai, orok dakinorden Mari, Ambotoko dama, lezekeo andrea, koba andrea... Bizileku ugari ditudala ere jakina da. Amboto, Oiz, Mugarra, Aketegi, Aizkorri, Txindoki, Murumendi, Gorbeia... guztiak dute zer bait amankomunean, baina aldi berean, bakoitzak bere berezitasunak eta magia mantentzen ditu. 7 urtetik 7 urtera leize batetik bestera aske bidaiatzen jarraitzen dut, Euskal Herriko zeruak hegaz zeharkatuz, suzko bola baten moduan. Hori da nire benetako istorioa.

Kobazuloetako bideak oso ondo ezagutzen ditut eta odola zainetatik ibiltzen den moduan, begiak itxita zeharkatzen ditut izkutuko zoko guztiak. Lurpean nagoenean sentitzen dudana lasaitasuna eta pakea adierazezinak dira. Baina, kanpora atera eta zure errealitatea zertan bihurtzen ari den ikusten dudanean, atsekabe haundia sentitzen dut. Zuk ez duzu horrelakorik merezi!

Amalurra! Zin egiten dizut, sasi guztien gainetik eta laino guztien azpitik, Euskal Herriko zeruetan zehar mezu garrantzitsu hau zabaltzen jarraituko dugula.

Amalurra defenda dezagun!!  
Mari.

### B Blogteka info

#### Argazki frexku-frexkuek

Ikasturte honetako argazkiak ikusi nahi badituzu sar zaitez gure webgunean. Gainera, badakizu Argazki bilduman egiten ditugun ia ekintza guztien argazkiak daukela, beraz kuxkuxeatzeko (semea, alaba, laguna, iloba, kuadrilakua, biloba...) aukera ona duzua.

**Hirukide ikastetxearen bloga**  
<http://www.tolosaldeko HITZA.info/blogak/hirukide/>

#### 68ko maiatza: ikasgaiez beteriko iraultza

Iritzi desberdinak atera dira 68ko maiatzari buruz. Batzuk garrantzia kendu nahi diote historiako greba orokor handiena izan zena-ri. Beste batzuentzat (tar-tean Dany gorria) gaurko mundua ez da dagoeneko 68 maiatzeko hura. Modu sentimental eta nostalgiko batean soilik gogoratu nahi dute, «haiek bai garai iraultzaile eta bo-

rrokalariaik» esaten dute. Ez dira gogoratzen ordea garai haietan ere indar handia zutela iraultza eta klaseko borroka iraganekoak zirenaren ideiak. Pessimista eta erreformistentzat beti dira iraganekoak borroka eta iraultzak. Horregatik hartzen dituzte iraultza berri guztiak sorpresaz, hilabete hartan gertatu bezala.

68ko maiatzean *The Economist*-ek honelako gauzak publikatu zituen: «kapitalismo frantziarrak lorpen ikaragarriak izan ditu», «britainiarrek baino haragi gehiago jaten dute», «kotxe gehiago dituzte», «sindikatu ahulak daude». Itxuraz gauza ondo zebilen kapitalistentzat. Baina artikulu honen tinta sekatu baino lehenago, langile klase frantziarrak mundu osoa txunditu zuen garai modernoetako altxamendu sozial handienarekin. Bere burua marxistatzat zuen Andre Gorzek ere artikulu bat idatzi zuen, bere kalterako borroken erdian publikatu zena: «kapitalis-

mo europarrak ez du krisi erradikalik izango, langileek ez dituzte greba orokorrak eta altxamendu armatuak antolatuko». Ernest Mandelek berriaz, hau ere ustez marxita, langile frantziarrak aburgesatuta eta amerikanizatuta zuek dela esan zuen egun batzuk lehenago eman zuen hitzaldi batean, beste 20 urtetan gutxienez gertakizun garrantzitsurik emango ez zela esanez...

**Euskal Herria Sozialista aldizkaria**  
<http://www.tolosaldeko HITZA.info/blogak/euskalherriasozialista/>

**@ Blogak.** Eskualdeko egunkariaren webgunean blog ugari dituzu: ikastetxeetakoak, elkarre desberdinetakoak, musika taldeak, norbanakoak... sar zaitez eta ikus ezazu bakoitzean idazten dutena. Nahi izanez gero, gainera, blogetan idatzita dagoenaren inguruko iritzia sartzeko aukera ere baduzu:

[www.tolosaldeko HITZA.info](http://www.tolosaldeko HITZA.info)

## berria

**Kazetaritza praktikak egiteko bekadunak**  
hautatzeko probarako deialdia

PROBAREN EGUNAK ETA TOKIAK

#### GIPUZKOAN

**Eguna:** maiatzaren 20a  
**Tokia:** Andoingo Martin Ugalde Kultur Parkea  
**Ordua:** arratsaldeko lauretan.

#### BIZKAIAN

**Eguna:** maiatzaren 23a  
**Tokia:** Leioako campuseko BERRITUTAKO ERAIKINA (Reformado) 1. gelan  
**Ordua:** eguerdiko ordu batean

#### ARABAN

**Eguna:** maiatzaren 20a  
**Tokia:** BERRIAko Gasteizko egoitza, Bizenta Mogel 6, behea.  
**Ordua:** goizeko bederatzita eta erdietan.

#### NAFARROAN

**Eguna:** maiatzaren 20a  
**Tokia:** BERRIAren Iruñeko egoitza, Irabeko monasterioa 45, eskuineko eskailera, 1.3. ezkerre.  
**Ordua:** goizeko 10:00etan.

**Probara curriculuma ekarri behar da**



## Laburrak

### Bihar hirigintza obretarako batzordearen bilera

**AMEZKETA** • Bihar Amezketa hirigintza obretarako batzordeak bilera egingo du, 20:30ean bertako balioanitzeko gelan. Gai nagusiak honakoak izango dira: Larraitz Bideko etxebizitzak, Kultur Etxea, plazako frontoia egokitzea, dirulaguntza eskaerak, eta abar. Bilerak herritarrentzat dira, hau da; irekiak. Beraz, interesa duena bertan azal daiteke herriko obrei buruzko informazioa jasotzeko. Etzi, berriaz, Kultura batzordea bilduko da.

### Jokin Muñozek jaso du Beterriko Liburua saria

**KULTURA** • Jokin Muñozek (Castejon, Nafarroa, 1963) irabazi du Beterriko Liburuaren saria, *Antzaren bidea* eleberriarekin. Irakurleek ematen dute saria, eta atzo jaso zuen, Andoainen. Joaquín Sorolla margolariaren *Umeak hondartzan* koadroaren iruditik abiatuta, 1936ko gerrako giroa eta egungo egoera politikoa batu ditu Muñozek liburu horretan. Garai horien artean jauzi eginez, bortizkeria eta giza sentimenduak aztertu ditu.

### Javier Ugarte 'Goteras'-en aldeko bazkaria Izaskunen

**TOLOSA** • Pintxana txarangako batzordeak jakinarazi nahi du datorren asteko igandean, maiatzak 25, Javier Ugarte *Goteras* txarangako azken zuzendariari omenaldia egingo diotela, herri bazkari bat eginez Izaskunen. Txarangako kide eta kide ohi guztiak gonbidatuta daude eta interesa duenak dei dezala (hilaren 20a baino lehen) 943 67 58 54 telefono zenbakira (erantzungailuan mezua utzi, mesedez).

## Xabi Alonso Eurokopian ariko da Espainiarekin

### ERREDAKZIOA

Xabi Alonso tolosar futbolaria Eurokopian ariko da Espainiako selekzioarekin. Luis Aragones Espainiako hautatzaileak atzo eman zuen Eurokoperako 23 jokalariko deialdia, eta haien artean dago Xabi Alonso, Liverpoolerako jokalaria. Ekainean izango da Eurokopa, Austrian eta Suitzan.

## Jauregiren aldeko oroitarria hautsi dute

### ERREDAKZIOA

Juan Mari Jauregi Gipuzkoako gobernadore zibil izandakoaren omenez Legorretan jarritako oroitarria hautsi zuten atzo ezezagun batzuek. ETAk 2000. urtean hil zuen Tolosan. Haren alargunak, Maixabel Lasak, hitz egingo du bihar Eusko Jaurkitzak biktimen alde egingo duen omenaldian.



# TOLOSAKO PAPER ESKOLA




GURE FORMAZIO ESKAINTZA

## KIMIKA, INGURUMEN ETA INDUSTRIA-PROZESU ZIKLOAK (PAPERGINTZA BARNE)

**euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez**

ZURE ETORKIZUNA GURE ESKUETAN

[www.escuela-papel.com](http://www.escuela-papel.com)

"Isurketak papergintzan" ikastaroa ekainaren 2tik 12ra

**ATE IREKIAK: maiatzaren 22tik 24ra (biak barne)**




Paper kalea 1 • Tel.: 943 67 29 00 • 20400 TOLOSA

[info@escuela-papel.com](mailto:info@escuela-papel.com)

## TOLOSALDEAKO EKINTZAILEAREN II. EGUNA

II. EDICIÓN DEL DÍA DEL EMPRENDEDOR DE TOLOSALDEA

[ 2008.5.20 ]







### ... gonbidapena

**Programa gonbidapena:** orotatu dituzten egunetako 25en, **TOLOSALDEAKO EKINTZAILEAREN II. EGUNA**.

**Lekua**  
Muzetxe Nagusia, Plaza Zaharra 1 - 1. solairua, 20004A.

**Egitarroa**  
20:00 Ongietorria eta Auzokopari  
Jokin Elizanetx, Tolosaiko Garaitzeneko Lehenakaria  
20:10 Hitzailea "Ekintzailearen Egoera"  
Nazioarteko Espainiar Garaitzenak  
20:45 Ekintzailearen 2007ko Erakundearen irakurketa  
21:00 Leheria

\*Hitzaldiak eta proiektuak gonbidatuak.

### ... invitación

Gonbidatuak erabakitakoak dira eta **II. EDICIÓN DEL DÍA DEL EMPRENDEDOR DE TOLOSALDEA**, que se celebrará el próximo 20 de mayo.

**Lugar de celebración**  
Palacio Municipal, Plaza Zaharra, 1 - 1º planta, TOLOSA.

**Programa**  
20:00 Bienvenida y Presentación  
Jokin Elizanetx, Presidente de Garaitzenak  
20:10 Conferencia "El caso de un emprendedor"  
Nazioarteko Espainiar Garaitzenak  
20:45 Hitzaldiak irakurketa "Ekintzailearen 2007" de la conferencia  
21:00 Leheria.

\*La inscripción es gratuita y voluntaria.











## Jende ugari Txapin Festan

**TOLOSA** ● Txapin Festa izenarekin atzo festa eguna ospatu zuten atzo *Gazteek kalea hartzeko eguna* lelopean. Goizean Berazubiko lokaletatik abiatuta poteoa

egin zuten eta ondoren bazkaria, Abastosen. Bertan 150 lagun inguru bildu ziren. Arratsaldean herri jolasak egin zituzten eta gauean kontzertuak izan ziren. N.U.



## Kirola, Kultur Astearen baitan

**ALKIZA** ● Alkizako Kultur Astearen baitan atzo spinning saioa egin zuten herriko pilotalekuan. 50 lagun inguru elkartu ziren 15:30etik aurrera eta 2 begiraleen laguntzarekin eta musika jarraituz, ariketa fisikoa egin zuten. Honela, Kultur Astea, beraz, kirolak ere izan du bere txokoa. N.G./N.U.

# Harrera apala, Anje Duhalderen emanaldian

**Leitza** » Emanaldia amaitu eta gero euskal kantagintzaren egoera aztertzeko topaketa egin zuten zinean.

**NAIARA GARZIA**

Atzo Euskal Kantarien III. Topaketa hasi zen Anje Duhaldek hitzez eta kantuz egin zuen euskal kantagintzaren historiaren laburpen batekin.

Duhalderen emanaldi honekin eman zioten hasiera XXX. Kultur Asteari eta ondoren topaketa parte hartzeko izena eman duten lagunak topaketa egin zuten zinean bertan, Oskar Estanga koordinatzailea eta Juan Velez Euskal Kantuzaleen Elkartearen kideekin.

Aurreran bazkaldu ondoren, Atekabeltzen kantariak elkarrekin kantuak prestatu zituzten, gaur 18:00etan zinean eskainiko duten emanaldia prestatzeko.

Topaketako koordinatzaileak berak, Estangak, Atekabeltzen eskaintako perkusio ikastaroa izan zen topaketa hauetako beste eskaintza nagusietako bat. Ondoren, Atekabeltzetik aterata perkusio brasildarra eta ohiko abestiak uzartu zituzten, herrian zehar egin zuten kantu-jiran.

### Anje Duhalderen emanaldia

35 lagun besterik ez ziren bildu Anje Duhalderen emanaldia ikusteko, baina bertaratu zirenak adi egon ziren abeslariaren hitzaldia jarraitzen. Duhalde euskal kantagintzaren historiaren laburpen bat egin zuen, 90. hamarkadara



Duhalderen kontzertua eta gero kantarien topaketa egin zuten. N. GARZIA

arte, eta Duhalde esan zuen bezala, «hemen amaituko da nire aipamena, 90ean sartzen gara eta ni ez naiz inor beste kantariak aipatzeko». Abeslariak bere istorioa propioa ere kontatu zuen, abestiekin tartekatuz, Bob Dylanen *Blowing in the wind* edo Rolling Stones-en *Satisfaction*, besteak beste.

60. hamarkadaren amaieran zentsura saihesteko kantu laburrak eta metaforikoak zirelanagusi azaldu zuen, eta testuinguru honek Joxean Arzakere eta Mikel Laboak sortutako abesti bat abestu zuen: *Txoriak txori*, «askatasunaren aldeko oihua».

Benito Lertxundiren *Zenbat gara* ere abestu zuen. Duhaldek adierazi zuenez «1972 inguruan, argitaratu nuen lehen diska eta esaten dutenez, rock euskaldunaren sorrera izan zen».

Errobi taldeari buruz ere min-

tzatu zen. «Gu izan ginen lehenak bateriarekin, gitarrekin... atera ginenak. Donibane Garazin jo genuen behin, eta hasieran zinea leporaino zegoen, baina lehenengo abestian gehienak kanpora joan ziren». 1975ean hainbat kantari sortu ziren. «Nonahi egiten ziren kantaldiak, hauek mitin bihurtzen ziren eta politika zegoen nonahi».

Duhaldek abesti dezente abestu zituen historiarekin tartekatuz, *Gure lekukotasuna*, besteak beste. «Abesti ateporala da, gaur egun gauza berean baikaude». Abestiak dioten bezala *oraindik ere gure herria ari baita negarretan*.

### Gaurko egitaraua

Gaur 12:30ean Benito Lertxundik eta Gorka Urbizuk mahai-ingurua eskainiko dute eta 18:00etan, topaketa parte hartu duten kantariak emanaldia eskainiko dute zinean.

## Bengoetxea VI.a buruz buruko finalean da

**N. GARZIA**

Oinatz Bengoetxea atzo buruz buruko txapelketako finalerako sailkatu zen, Asier Olaizolaren aurka 22-16 irabazi ondoren.

«Pilotak eragin handia izan du nire ustez», azaldu zuen pilotariak partida amaitu ondoren. «Hasieran sakearekin min handia egin diot, baina gero Asierrek asko jokatu du bere pilotarekin. Gero sakea berriro nik lortu dut eta aurrea hartu diot». Julian Iparragirre pi-

lotan adituak Bengoetxeak «merito ikaragarria» izan zuela azaldu zuen partida amaitu ondoren. «Sakeak garrantzi ikaragarria izan du eta pilota gutxiago jo duen arren, saketik joan da partida. Ikaragarriko txapelketa egiten ari da».

Orain beste finalista falta da. «Abel izango balitz poza ikaragarria emango lidake, berezia izango litzatekeelako, baina bataren edo bestearen aurka, partida gogorra izanen da».

## Zinema euskaraz berria rekin



Maiatzaren 24an

filma DVD formatuan



Maiatzaren 27an

filma DVD formatuan



+ 6,95€



OHARRA: biltegikoak bukatu arteko eskaintza



Jose Mari Gorrotxategi erdian, Tolosako udaletxeko arkupean, omendu zutenen artean. N. URBIZU.

Omenaldi «gozoa» egin zioten atzo Jose Mari Gorrotxategi konfiteroari Tolosako udaletxean eta gozogile honen ingurukoen hitzak entzun ahal izan ziren hobekien ezagutzen dutenen ahotik.

# Hitz gozoak gizon gozo batentzat

## NEREA URBIZU

**J**ose Mari Gorrotxategi omendu zuten atzo Tolosako udaletxean. Hasteko, Plaza Zaharrean harrera egin zioten hainbat pertsonai ezagunek. Udaltxistulari taldea izan zen musika jotzen eta *Agurra* dantzatu zioten bi dantzarik bukatzeko.

Udaletxeko areto nagusian lekuri ez zen beste inorentzat. Gorrotxategi konfiteroa bere familia-rekin batera han izan zen mahaiean eseritako hitz gozoak entzuten. Luis Irizar sukaldaria, Vicente Zaragueta Donostiako aquariumeko lehendakaria, Miren Azkarate Kultura Sailburua, Jokin Bildarratz Tolosako alkatea, Lourdes Fernandez Arcoko zuzendaria edota Espainiako erregearen pasteleroa den Paco Torrelanča, besteak beste.

Jose Mari Gorrotxategi hainbat sorpresa jaso zituen: merezitako hitz politikak entzun zituen. Ainhoa Artetak, aurrekoekin bezala eskerrak eman zizkion, «den bezalakoa izateagatik», eta *Dale fuego* kantua eskaini egin zion zuzenean. Gorrotxategi, bukaeran aitortu

zuen «emozionatu egin zuela Ainhoak, negarra eraginez».

Txistularien eskutik Xaxu pasteltxoei eskainitako Tolosako obrak entzun ahal izan ziren. Tarteka omenaldi osoan zehar Juan Mari Arzak edo Martin Berasategiren hitzak entzun ahal izan ziren.

Alde Zaharrekoen aldetik oparibat ere eman zioten, honen alde egindako lanarengatik. Bukatzeko, Jokin Bildarratz alkateak zinegotziek San Joan egunean dararmaten kapa eta domina eman zion oroigarri gisa.

## Udaletxeko zinegotzi zenekoa

Udaletxeko zinegotzi izan zen, alkateordea. Garai haiek ere gogoan izan zituzten, eta bukatzeko orduan, Gorrotxategi berak ere garai haiek gogoratu zituen, «horretaz arrotz sentitzen naiz». Lehen ikastetxea euskaraz Tolosan izateko lana gogoratu zuen, beste hainbat anekdotez gain. Eskerrak eman zizkien denei, «zer gehiago esango dut?».

Kanpoan, udaletxeko arkupean teletibista handi bat jarri zuten ber-



Aranburu jauregian Gorrotxategi egindako argazkien erakusketa dago. N. U.

tan zeudene ere omenaldia ikus zezaten. Bukaeran, balkoiera atera eta dantza egin zioten berriz ere Gorrotxategiri, dantzariak behean zeudela. Bitartean, Gorrotxategi gozodendak txokolate beroa banatzen aritu zen bertaratu zirenguztiantzat.

Bestalde, Aranburu jauregian Gorrotxategi 55 urtez egindako

argazkien erakusketa antolatu du eta bertan izango dira argazki interesgarriak ikusgai ekainaren 14ra arte. 55 urte argazkitan eman zaio izena. 15 urte zituela hasi zen argazkiak ateratzen Gorrotxategi.

Pintxo landu eta goxoak probatzeko eta dastatzeko aukera izan zuten erakusketara joan zirenguztiek.

## Laino eta eurien artean, eragin baikorra izan du eskaintzarengan eguraldiak

**Azoka** » Produktu gehienek gora egin dute bai kopuruan eta baita kalitatean ere. Prezioak, berriz, behera doaz.

### PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna laino eta eurien artean suertatu zen, ia joan den astearen egun guztietan bezala. Eguraldiak, oso eragin baikorra izan du eskaintzarengan, eta produktu gehienek gora egin dute, bai kalitatean, baita kopuruan ere. Prezioak, ordea, piskanaka behera dihoaz. Atzo, adibidez, ilarra 8 eurotan saldu zen, baba 2 eurotan eta patata berria 2,5 eurotan.

Aipatzekoa ere atzoko perretxiko eskaintza. Oso zabala izan zen, eta salmentak goiz osoan zehar oso animatuak izan ziren. Ziza merkeena 6 eurotan saltzen zen eta garstiena 36 eurotan. Onddoa 2 eurotan eta senderuela 15 eurotan.

## » ATZOKO AZOKA

	Merka	Gares.
<b>Bertako produktua</b>		
<b>Perretxikoak</b>		
Ziza	6,00	35,00
Onddoa	21,00	30,00
Senderuela	15,00	-

<b>Fruta</b>		
Intxaurra	2,50	4,00
Marrubia	4,00	-

<b>Barazkiak</b>		
Porruak	1,00	3,00
Babarrun zuria	8,00	10,00
Kalabaza	1,50	3,00
Erremolatxa	1,50	2,00
Azalorea	1,00	-
Trebisoa	0,90	-

## Otaola: «Maria San Gilek PPTik alde eginen bada, ni ere joan egingo naiz»

### ERREDAKZIOA

Lizartzak alkatea den Regina Otaolak atzo adierazi zuen, Maria San Gil Euskadiko PPren lehendakaria alderditik joaten bada, berak ere PP utziko duela. «Maria San Gil baldin badao, PPn estatu mailan zerbait aldatu dela esan nahi du, eta orduan ni ere joan egin beharko naiz». Deklarazioak Espainiako irratia saio batean egin zituen. «Ez joatea espero dut, sinesten dugun hori defendatzen jarraitzeko aukera izanik», gaineratu zuen.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. 685 22 70 58.

■ **Zaintzailea.** Neska euskalduna behar da umeak zaintzeko. 685 72 20 47 eta 635 71 24 41.

**SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAREN LAN ESKAINTZA**

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

**SANATU BEHARRIKO LANAK**

Soziolinguiстика Klusterreko teknikeri lan, proiektu koordinatzaile koordinatzaile, markeko koordinatzaile, lan bakoiko koordinatzaile, lan bakoiko koordinatzaile...

**ONARRIKO BALANTZAK**

Estadistika lanak eta kontak  
Guztietako soziolinguiстика proiektuak  
Lan bakoiko koordinatzaile...

**PROPOSAMENAK AHIRKETZKO:**

Behin 2008an  
Egungo: 2008ko maiatzaren 18an  
Nire helbidea: soziolinguiстика.org edo Soziolinguiстика Klusterreko Matriko Udalarekin 2010. helbidea

**GURDI nekazaritza kooperatibak langileak behar ditu**  
Zarauzko eta Anoetako lantokietarako.

Egun osoz edota egun erdiz, zeregin ezberdinetarako: denda, biltegia, banaketa.

Interesatuak harremanetan jarri maiatzaren 20a baino lehen GURDIrekin: 943 655 880



'Ahozkotasuna eta Bertsolaritza' ekimenarekin, gauzak bertsotan agertzen ikasi dute Hirukide, Laskorain eta Samaniegoko ikasleek; proiektuaren baitan bi saio eskaini dituzte Leidor antzokian.

# Bertsotan esango dizut

## ESTI EZEIZA

Jende gehienarentzat zaila da jendaurrean hitz egitea, eta gehiago gaztetxoak zarenean. Buruan ideia bat izan eta inguru-koei plazaratzea, pentsamendu hori mamitu eta hitz bilakatzea, hori da lan gehiena ematen duena. Horretan laguntzeko asmoz, *Ahozkotasuna eta Bertsolaritza* izeneko ekimena jarri zuten martxan duela urte batzuk Tolosako hiruki ikastetxetan: Hirukide, Samaniego eta Laskorain. Lan hori egiteko, Aitor Mendiluze eta Bixente Gorostidi eskualdeko bertsolariak izan dituzte gidari.

Ikasturteko lehen hilabetetik dihardute bi bertsolari hauek, lehen hezkuntzako ikasleei eskolara ematen. Denera 27 talde dituzte, laugarren mailatik hasi, eta seigarrenera arte. Orain, kurtso amaierara iritsi direnean, ikasitakoa erakusteko garaia iritsi zaie ikasleei. Horretarako, bi emanaldi eskaini dituzte Leidor antzokian. Bertan, eskolatan prestatutako bertsuak abestu zituzten, ikaskide, guraso eta irakasleen aurrean.

Duela lau urte jarri zuten martxan *Bertsolaritza eta ahozkotasuna* ekimena. Ordutik, Mendiluze eta Gorostidi ari dira lanean, eta beraien esanetan, urtetik urtera nabari da diferentzia. «Gero eta errazagoa egiten zaie gaztetxoei kideen aurrean jartzea eta bertsotan aritzea. Baita, esan nahi dutena, bertsotan adieraztea ere». Ardura-dunek azaldu takoaren arabera, egitasmo honen helburua da «gaztetxoei diskurtso bat egiten irakastea, buruan dutena egituratzea, gero, eta hitzetan azaldu ahal izatea». Gaineratu zuten ere, hasieran, gehien kostatzen zaiena diskurtsoa bera dela, hau da, gaia bilatzea, eta ondoren, bertsoaren formara moldatzea. Izan ere, ber-


tsoaren berezitasunetako bat da, garrantzitsua amaieran datorela, eta indargehiena bertan pila-tzen dela.

Proiektu honekin, ongi pasatuz, bertsoa zer den ezagutzeko aukera dute haurrek. Hala, jolas ezberdinen bitartez ikasten dute bertsotan. Astean behin izaten dituzte saioak, eta bitik behin joaten dira bertsolariak ikastetxera. Aipatu bezala, orain arte bi emanaldi eskaini dituzte Leidor antzokian. Azkena duela egun gutxi izan zen, hilaren 13an, hain zuzen ere. Orduan, Lehen Hezkuntzako laugarren mailakoak igo ziren taula gainera. Hurrengo saioa etzi izan behar zuen, baina azken orduko aldaketa batzuk direla eta, beste egun batean egingo dute jaialdia.

## Bertso eskola sortzea hurrengo erronka

Egun, Tolosan ez dago bertso eskolarik. Hori dela eta, Aitor Mendiluzeren esanetan, duten «beste helburuetako bat bertso eskola sortzea da».

Ikastetxeetan aurrera eramaten ari diren lanarekin lotuta, bertsoetarako afizioa gazteengan zabal-tzea lortu nahi dute eskualdeko bertsolariek. Hori dela eta, datoren ikasturterako bertso eskola martxan izango dela aurreikusten dute. Honetarako, idatziak banatu dituzte Hirukide, Laskorain eta Samaniegoko ikasleen artean, izena eman dezaten. Dena den, deialdia zabala da, eta ikastetxe hauetako ikasleak ez direnek ere eman dezakete izena. Honetarako, Bertsozale Elkarteak Tolosako egoitzara deitzea besterik ez dute. Gainera, 18 urtetik gorakoek ere har dezakete parte. Ikasle kopuruaren arabera hasiko dira zehazten ordu-tegi eta taldeak. Baina, irailean lanean hasia espero dute.



Laskorain, Samaniego eta Hirukide ikastetxeetako laugarren mailako ikasleak aritu ziren hilaren 13an, Leidorren. E.E



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Maiatzaren 18an  
XIV Orduetako ibilaldia

Ibilbidean zehar  
ateratzen dituzuen  
argazkiak bidali  
HITZAra eta hilaren 23ko alean  
argitaratuko ditugu.

Argazki onena saritu egingo dugu!



HITZA argazki lehiaketa

bidali  
zure argazkia!



Argazkiak tolosaldean@prolosaldeko-hitza.info-ra bidali



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1.687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak**  
**S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta  
Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai**  
**Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia 

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Tolosaldea.** XIV Orduko Ibilaldia Berazubitik 05:00etan abiatuta Gaztelu, Uli, Gorriti, Lekunberri, San Miguel, Igaratza, Amezketeta eta Berazubiko zelaian amaituz.  
■ **Anoeta.** Dantzari Txiki Eguna. 10:00: azoka; 11:00: herri kroa; 12:00: herri kirolak.

### Zinema

■ **Tolosa.** Leidor aretoan, gaur: 17:00: *Papa por sorpresa*; 19:30: *La familia Savages*; 22:00: *El ultimo gran mago*. Bihar (ikuslearen eguna): 20:30ean: *La familia Savages*.  
■ **Villabona.** Gurea aretoan, gaur: 18:00: *Papa por sorpresa*; 20:00: *Falsificadores*. Bihar (ikuslearen eguna): 21:30: *Falsificadores*.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

#### Gaur

■ **Lekua.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.  
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.  
**Bihar**  
■ **Tolosa.** Olarreaga, J. korreo kalea, 2. 943 67 01 28.  
■ **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanena eta iritzien erantzunkizunik.



## Jaien bezperan, Koadrila Eguna

**ANOETA** ● Herriko jaietako txupinazioa datorren asteazkenean izango den arren, atzo jai giroa nagusi izan zen Anoetan, Koadrilaran Eguna zela eta. 200 lagun inguru bildu ziren pilotalekuan bazkaltzera eta arratsaldean koadrilen arteko jokoak ere egin zituzten, baita afaria ere. Txupinazioa Satorrak Arrastaka koadrilak bota zuen, iazko jokoa irabazi baitzituzten. Gaur Dantzari Txiki Eguna izango da. n.g.

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Aimar eta Oier Saez Sagarna.** Gaur urtebete betetzen dute. Zorionak eta muxuak guraso eta famili guztiaren partetik.



### Urte askoan!

**Goreti Oreja Mitxelena (Tolosa).** Gaur 6 urte. 6 muxu haundi etxeko guztien partetik.

**agurrak** urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

hazi

nahi duten pertsonentzat



Gipuzkoako Foru Aldundiak gizarte parte-hartezari buruzko hiru argitalpen eskaintzen dizkizu

Elizan edo zure ikasketan doan jaso nahi badituzu, indorengi bidali erabili ditzaitezuen izena emateko. Mota-mota, ikasleak eta irakasleak jasoak dituzte.

Izena eman

Deitu: 943 25 10 05 | Idati: partehartu@baketik.org | Sarbi: www.baketik.org

Parte hartzen pertsona eta gizarte moduan hazten gara

Kolaboratzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

Laguntzaileak:



Aholkulariak:



kultura politik berria  
Programa de participación cidadana. Foru Aldundia